

OSOKO BILKURA BEREZIA
2007-06-16

2007ko ekainaren 16an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, goizeko 09.00 orduetan, agintaldia bukatzeaz duen Alkate Lehendakariak egindako deialdian, joan den maiatzaren 27an egindako hauteskundeetan hautatutako behean aipatzen diren Zinegotziak bildu dira:

ZINEGOTZIAK: Xabier Mujika
 Karlos Irazu
 Adela Mendiola
 Igor Barandiaran
 Iñigo Aginalde

Ekitaldian parte hartzen du eta fede ematen du Udaleko Idazkari-kontuhartzaile lanetan ari den M^a Eugenia Muñoa Irureta andreak.

Idazkariak adierazten du, batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erreglamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa betez, ondoko gai-zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea.

Ondoren, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan aurikusitakoa betez, adineko mahaia osatzen da ondorengo partaideekin:

- Adela Mendiola zinegotzi zaharrena denez, mahaiburu izango dena.
- Iñigo Aginalde zinegotzia gazteena delako.

Korporazioko Idazkaria, idazkari gisa arituko delarik.

Une honetan, Mahaikideek banan bana aldeaz aurretik entregatutako kredentzial guztiak aztertzen dituzte, eta egiaztatzen dute zinegotzi hautatuen nortasuna akreditatzen duten kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak udaletxera bere garaian bidali zituenekin bat datoxtela.

KORPORAZIOAREN ERAKETA: Aurreko Operazioa egin ondoren eta kontutan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren zinegotzi guztiak etorri direla, hau da, gehiengo absolutu legala, mahaiburuak zinegotziak gonbidatzen ditu azal dezatela kargu izendapenaren ondorioz bateraezintasun arrazoiren batek ukitzen dien, inongo azalpenik azaltzen ez delarik. Beraz adineko mahaiak Udal Korporazioa eratutzat ematen du. Korporazioa eratutzat emanez, zinegotziek Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikulua ezarritakoa betetzen dute Hauteskunde Legerian legalki ezarritako formula erabiltzen dutelarik.

Ondoren, apirilaren 18ko 781/1986 Erret. Dekretu Legegileak onetsitako Erregimen Lokalaren alorrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratuko 86. artikulua eta ekainaren 13ko 1372/1986 Erret. Dekretuak onetsitako Udal Entitateen Ondasunei buruzko Erreglamenduko 33.2 artikulua xedatutakoa betez, aldeztu aurretik zinegotzi guztiak zeukaten Udal Ondasunen Inbentarioari buruz edozein oharpenik egiteko aukera ematen zaie, inongo alegaziorik azaltzen ez delarik.

Ondoren, Idazkariak 2007ko ekainaren 16ko erreferentzi datuz, akta honi erantsirik doan erainkinean ziurtatutako moduan Udaletxeko diruzaintza izakinen kokapenaren egoera Udalkideei azaltzen die, jakinaren gainean geratzen direlarik.

ALKATEA AUKERATZEA: Bertan daudenei, Idazkari andreak adierazten die martxoaren Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean Alkatea aukeratu behar dela, lege horretan ezarritako prozedurari jarraituz:

- Zinegotzi guztiak dira hautagai.
- Bertan dauden hautatutako zinegotzi guztiak dira hautesle.
- Aukeraketa bozketa bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz gutxienez 3 botu beharko dira.
- Botazio honetan inork ez badu gehiengo absolutoa lortzen, hauteskundeetan botu kopururik handiena lortu duen zinegotzi hautatua automatikoki Alkate aldarrikatuko da.

Ondoren, zinegotzi guztiak beren botua ematen dute, emaitza ondorengo hau delarik:

- Xabier Mujika: 5 botu.

Bozketa honen emaitza ikusirik, Xabier Mujika Pagola Jauna zinegotzi hautagaia Udal honetako Alkatea aldarrikatzen da, 5 botu horiekin gehingo absolutu legala osatzen duelako.

Jarraian, Xabier Mujika Pagola Jaunak Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazten du, eta hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera promesa egin ondoren, korporazioko Udal Batzarraren aurrean karguaren jabetza hartzen du, indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Eta besterik gabe, 09.15etan, Alkate jaunak Korporazioaren eraketa ekitaldia amaitutzat ematen du.